

Equiling: lurraldeen arteko ikerketa-ekintza berdintasun soziolinguistikorako

MIREN OTXOTORENA ARANGUREN
(SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA)



Equiling: lurraldeen arteko ikerketa-ekintza berdintasun soziolinguistikorako

#udaltop18

MIREN OTXOTORENA ARANGUREN
(SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA)

AURKIBIDEA

| | |
|---|---|
| Sarrera | 3 |
| Equiling: soziolinguistika kritikorako lurraldeen arteko lanketa | 3 |
| Kontzeptu nagusiak: berdintasuna, justizia eta agentzia | 4 |
| Metodologia: ikerketa-ekintza partehartzailea | 5 |
| Lau lurralde, lau kokapen, galdera komun bat | 6 |
| Ekintza eraldatzaileak eta emaitza nagusiak | 7 |
| Tokiko administrazioentzako ikasgaiak | 8 |
| Bukatzeko... | 8 |

Bideo-elkarrizketaren edukietan oinarritutako azalpena aurretiko lanketa egiteko.

Sarrera

Udaltopen aurtengo gogoeta gai nagusia justizia linguistikoa izango da eta horrek bete-betean lotzen du Equiling proiektua jardunaldiarekin.

Equiling ikerketa proiektuak proposamen teoriko-metodologiko berria dakar eta ikerketa soziolinguistikoa-oren bitartez hizkuntzek gizarteko parekotasun ezak nola sortzen, mantentzen eta erreproduzitzen dituzten ulertu eta prozesu hauetan eragin nahi du. Ildo honetan, proiektuak bi xede biltzen ditu: alde batetik, hizkuntzak gizarteko parekotasun ezen eraikuntzan duen rolaren ezagutza sakona izatea eta, bestetik, hiztunek eta soziolinguistek eraikuntza hori bideratzen duten prozesuak nola alda ditzaketan aztertzea.

Equilingek ez du hizkuntzaren auzia gaitasun edo erabilera datu hutsen bidez ulertzen, baizik eta botere-harremanen, aitortzaren, baliabideen banaketaren eta parte-hartze sozialaren arteko gurutzagunean kokatzen du.

Equiling: soziolinguistika kritikorako lurraldeen arteko lanketa

Equiling 2020tik 2025era garatutako ikerketa-proiektua da. Izen osoak berak adierazten du norabidea: Kontzientzia linguistiko kritikoa eta hiztunen agentzia: berdintasun soziolinguistikorako ekintza-ikerketa. Soziolinguistika kritikoa eremuan kokatzen da, eta galdera hau du abiapuntu: zer rol jokatzeko du hizkuntzak gaur egungo desberdintasun sozialak sortu, mantendu edo erreproduzitzeko prozesuetan?

Horretarako, proiektuak ez du hizkuntza gizarte-prozesuetatik bereizita aztertzen. Aitzitik, hizkuntza-praktikak -hizkuntza-politikak, elkarrekintza, hizkuntzaren ekoizpena, aldaeren balorazioa, hiztunen legitimazioa-prozesu historiko, ekonomiko, politiko eta sozialekin lotuta ulertzen ditu. Horregatik, Equilingen hizkuntzaz hitz egitea ez da hizkuntza-kodeez bakarrik hitz egitea: hiztunez, sarbideaz, prestigioaz, gorputzez, esperientziez eta parte-hartze sozialaz hitz egitea da.

Proiektua lau azpiproiektutan egituratu da: Euskal Herrian, Galizian, Katalunian eta Madrilan. Lurralde horiek ez dira konparazio mekaniko baterako aukeratu; tokian tokiko egoera soziolinguistikoek aukera ematen dute botere-harremanak nola artikulatzen diren ikusteko. Batzuetan antzeko mekanismoak agertzen dira -hiztun batzuk legitimoago bihurtzen dituzten arauak, adibidez-; beste batzuetan, ordea, mekanismo horiek modu berezitan agertzen dira, hizkuntza gutxituaren, estandarraren, migrazioaren, klase sozialaren edo arrazializazio prozesuekin uztartzen baitira.

Equiling proiektuaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat izan da kontzientizazio-espazioak sortu eta zaintzea. Lanketak ez dira modu abstraktuan edo kanpotik egindako azterketa huts gisa planteatu; aitzitik, parte-hartzaileek beren eguneroko esperientziak, hizkuntza-ibilbideak eta bizipenak partekatzeko aukera izan duten espazio zehatzetan garatu dira. Espazio horiek —unibertsitateko taldeak, ikastetxeak, kirol-testuinguruak edo elkarteak— ez dira ikerketarako kokaleku soilak izan, baizik eta parte-hartzaileentzat esanahi sozial eta afektiboa zuten guneak. Horregatik, bertan egindako lanketak aukera eman du injustizia soziolinguistikoak esperientzia konkretuetatik abiatuta identifikatzeko, elkarrekin problematizatzeko eta, pixkanaka, eraldaketarako aukerak irudikatzen.

Kontzeptu nagusiak: berdintasuna, justizia eta agentzia

Bideo-elkarrizketan bi kontzeptu agertzen dira erdigunean: berdintasun linguistikoa horrek dakarren justizia soziolinguistikoa. Ez dira definizio itxi eta behin betiko gisa aurkezten, baizik eta errealitatea aztertzen begirada gisa. Gizartea aldatzen den neurrian, desberdintasunak ekoizteko mekanismoak ere aldatzen dira; horregatik, justizia soziolinguistikoaren markoak testuinguru bakoitzean galdera berriak egiteko gaitasuna izan behar du.

Equilingek Nancy Fraserren justizia sozialaren markoa hizkuntza-eremura ekarri du. Marko horren arabera, desberdintasun sozialak elkarreraginean dauden hiru ardatzetan artikulatzen dira: aitortza, baliabideen banaketa eta parte-hartzea. Hizkuntzara ekarrita, galdera hauek sortzen dira: nor aitortzen da hiztun legitimo gisa? Zein hizkuntza edo aldaerak dute prestigioa eta zeinek ez? Nork du hizkuntza-praktiken bidez baliabide ekonomiko, sinboliko edo instituzionaletara iristeko aukera? Nork har dezake parte gizartean, zein baldintzatan eta nork ez?

Justizia soziolinguistikoa, beraz, ez da hizkuntza baten aldeko aldarrikapena soilik. Hitzunek gizartean modu parekidean aitortuak izateko, baliabideetara sarbide parekidea izateko eta erabakiguneetan parte hartzeko duten aukerarekin lotuta dago.

3.1. HIZTUNEN AGENTZIA

Hiztunen agentziaren kontzeptuak subjektuek beren hizkuntza-praktiketan eta gizartean eragiteko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia. Baina gaitasun hori ez da hutsetik sortzen, botere-harremanez subjektuak gizartean kokatzen baitituzte.

Equilingen ikuspegitik, agentzia ez da norbanakoaren borondate hutsaren kontua. Espazio sozialek ahalbidetu edo oztopatu egiten dute. Aitortza eta prestigio prozesuak aldatzen direnean, subjektuen agentzia ere alda daiteke: hitzunik ez dira soilik arauetara egokitzen; arauak berrikusi, zalantzan jarri eta eraldatu ere egin ditzakete.

Horregatik da garrantzitsua kontzientzia soziolinguistiko kritikoa: hiztunari aukera ematen dio bere esperientzia pertsonala prozesu sozial zabalagoekin lotzeko.

3.2. KONTZIENTZIA SOZIOLINGUISTIKO KRITIKOA

Kontzientzia soziolinguistiko kritikoak hizkuntza-praktikek boterearekin duten loturari erreparatzen dio. Ez da hizkuntzari buruzko ezagutza tekniko hutsa; hiztunari eta komunitateari aukera ematen dio ohikoak edo naturalak diruditen hierarkiak problematizatzeko: zergatik baloratzen da aldaera bat bestea baino gehiago? Zergatik geratzen da hizkuntza-aniztasuna ikusezin? Zergatik sentitzen dira hiztun batzuk epaituak edo ez nahikoa legitimo?

Begirada horrek garrantzi berezia du hizkuntza gutxituen kasuan. Euskara bultzatzeko beharrezkoa da galdetzea non sortzen diren segurtasun linguistikoak, legitimitatea eta parte-hartzeko aukerak, eta non, aldiz, bizi duten hiztunek kontrol edo begiratze linguistikoak eta zein eratan.

Metodologia: ikerketa-ekintza partehartzailea

Equilingek ikerketa-ekintza ikuspegia erabili du. Praktikan, horrek esan nahi du ikerketa ez dela deskribapenean gelditzen: egoera bat aztertzen da, baina azterketa horrek ekintza eraldatzailea elikatu behar du. Are gehiago, Equilingen ikerketa-ekintza partehartzailea izan da: ez daude ikerlariak alde batean eta ikertuak bestean, baizik eta ezagutza elkarrekin eraikitzen duten subjektuak.

Ikuspegi horrek ikerketa estraktibismotik -hau da, parte-hartzaileen esperientziak soilik datu gisa hartu eta akademiara eramateko logikatik- urruntzea eskatzen du. Praktika bestelakoa da eta elkarlanean erantzuten zaie horrelako galderari: zer gertatzen ari da hemen? Nola bizi dute parte-hartzaileak? Zein botere-harreman daude atzean? Zer egin daiteke horrekin? Eta nola egingo dugu elkarrekin?

Horregatik erabiltzen da zientzia herritarraren ideia: parte-hartzaileak ez dira informazio-iturri pasiboak, baizik eta ezagutza duten eta ezagutza sortzeko gaitasuna duten subjektuak. Haien esperientziek ezagutza akademikoa aberasten dute, eta ezagutza akademikoak, aldi berean, parte-hartzaileen interpretazio eta ekintza gaitasuna indar dezake.

4.1. KONTZIENTIZAZIO PROZESUAK

Proiektuaren oinarrian Paulo Freireren kontzientizazioaren ideia dago. Hiru fase ditu:

1. Ordena soziolinguistikoak identifikatzea: parte-hartzaileek beren esperientzietatik abiatuta inguruko desberdintasunak ikusten eta izendatzen hasten dira.

- Desberdintasun horien arrazoi sozial, ekonomiko eta politikoak aztertzea: gobernantza, ekonomia politikoa, estratifikazio soziala eta botere-harremanak azaleratzen dira.
- Eraldaketarako gogoia eta gaitasuna mobilizatzea: hausnarketak ekintza posibleetara eramaten dira, parte-hartzaileekin batera.

Fase horiek denbora behar dute. Horregatik izan da garrantzitsua proiektuaren izaera longitudinala: lau urte baino gehiagoz lan egiteak aukera eman du prozesuak astiro lantzeko, konfiantza eraikitzeko eta analisitik ekintzara igarotzeko.

Lau lurralde, lau kokapen, galdera komun bat

Aipatutakoa azpiproiektu bakoitzean garatu da, honako era hauetan:

| Lurraldea | Fokua | Aztertutako auzi nagusia |
|--|--------------------------------------|---|
| <p>Madril: Herritartasun linguistiko berri baterantz: hiztunen aitortzarako ikerketa-ekintza hezkuntzaren arloan Madrilen</p> | Unibertsitatea | Gaztelania estandarren hegemonia, ingelesaren aitortza eta hizkuntza-aniztasunaren ikusezintasuna. Horrek hizkuntza-eredu nagusietatik aldentzen diren hiztunen sarbidea eta herritartasun osoa baldintzatzen ditu. |
| <p>Galizia: Galiziako hezkuntza sistemako eraldaketa soziolinguistikoko esparruak: hiztunen agentzia, errepertorio eleaniztunak eta praktika (meta)komunikatiboak</p> | Bigarren hezkuntzako eskolak | Jatorri immigranteko ikasleen errepertorio eleanitzen aitortza falta eta horrek gelako parte-hartzean eta hezkuntza-kapitalerako sarbidean dituen ondorioak. |
| <p>Euskal Herria: Eraldaketa soziolinguistikoko prozesuak euskararen testuinguruan: hiztunak, praktikak eta agentzia</p> | Unibertsitatea eta kirol-taldeak | Gaztelaniaren hegemonia, euskararen aldaera estandarizatu eta ez-estandarizatuari emandako balio desberdinak, eta hiztunen legitimazio prozesuak. |
| <p>Katalunia: Hiztun berriak Kataluniako eraldaketa soziolinguistikoaren agente gisa</p> | Elkarrekin eta migratutako pertsonak | Baliabide linguistikoaren banaketa, arrazakeriak eta segregazio sozioekonomikoak zeharkatutako testuinguruetan. |

Ekintza eraldatzaileak eta emaitza nagusiak

Equilingen ekintza eraldatzaileek erakusten dute kontzientzia kritikoa ez dela amaiera, abiapuntua baizik. Parte-hartzaileek beren ingurunea aztertu dute, desberdintasunak identifikatu dituzte eta ekintza zehatzak proposatu edo gauzatu dituzte.


Proiektu osoan, bideoak, dokumentalak, podcastak, gida didaktikoak eta argitalpen akademikoak sortu dira, esperientziak zabaltzeko eta beste testuinguru batzuetan berrerabiltzeko. Guztiak daude eskuragarri webgunean (<https://www.equiling.eu/eu/>).

6.1. EMAITZA NAGUSIAK

Elkarrizketan azpimarratzen denez, metodologia bera emaitza garrantzitsua izan da: parte-hartzaileekin harremana mantentzeak, haien ezagutza aitortzeak eta analitiko ekintzara pasatzeak fruituak ematen ditu. Akademiarentzat ere ikaskuntza da: komunitateekin lan egitea ez da ikerketaren osagarri, baizik eta ezagutza sortzeko modu bat.

Maila teorikoan, honako ondorioak azpimarratu daitezke:

- Hizkuntza-praktiketan egitura sozialak etengabe erreproduzitzen dira: mikro mailako elkarrekintzak eta makro mailako botere-harremanak elkarlotuta daude.
- Hizkuntza-sozializazioak eragin oso handia izan dezake pertsonen proiektu politikoan eta beren burua hiztun gisa irudikatzen moduan.
- Begiratze edo bigilantzia linguistikoa oso presente dago: besteekiko eta norbere buruarekiko kontrolak hizkuntza-praktikak eta subjektibitateak modelatzen ditu.
- Botere-harremanen ondorioak ez dira abstraktuak: hizkuntza-praktiketan, ongizate psikologikoan eta eguneroko ekintzetan eragiten dute.



Tokiko administrazioentzako ikasgaiak

Equilingen ikuspegitik, proposamenak tokian tokiko komunitateekin landu behar dira, herri bakoitzaren dinamika soziolinguistikoak ez direlako berdinak.

7.1. DIAGNOSTIKOAK ZABALTZEA

Ohiko diagnostiko soziolinguistikoek jakite-maila, erabilera-maiztasuna edo jarrera orokorrak neurtzen dituzte. Horiek beharrezkoak dira, baina ez nahikoak. Soziolinguistika kritikoaren ikuspegitik, udal-diagnostikoek galdera sakonagoak ere egin beharko lituzkete:

- Non sentitzen dira herritarrak euskal hiztun legitimo?
- Non sentitzen dira epaituak edo hizkuntzaz kontrolatuak?
- Zein espaziotan dago euskara benetan aktibo, eta zeinetan ageri da soilik modu sinbolikoan?
- Nork du euskaraz parte hartzeko aukera erreala, eta nork ez?
- Zein hizkuntza-ibilbide edo aldaera geratzen dira ikusezin edo minorizazio prozesuen pean?

7.2. JUSTIZIA SOZIOLINGUISTIKOA GOBERNANTZA-BEGIRADA GISA

Justizia soziolinguistikoa, programa isolatua izan beharrean, gobernantzaren printzipio gidari bihur daitezke. Horretarako, hiru ardatzak batera erabili behar dira. Aitortza bakarrik ez da nahikoa, baliabiderik eta parte-hartze aukerarik ez badago. Baliabideak jartzea ere ez da nahikoa, hiztunak legitimatuta sentitzen ez badira. Parte-hartze prozesuak antolatzea ez da nahikoa, parte hartzeko baldintzak desorekatuta badaude. Ikuspuntu historikoa ere presente egon behar da: maila diskurtsiboan eta gizartea diskurtsoetatik eraikitzen den heinean, argi azaldu behar da justizia soziolinguistikoa desoreka historiko eta sozialei eman nahi zaien erantzunetatik sortutako begirada bat dela.

Bukatzeo...

Ordena hegemonikoari kritikotasunez eusten zaionean beste mota bateko espazioak sortu daitezke, eta espazio horiek eraldaketa sozialerako potentzialtasuna dute.

Hizkuntza gutxituen alde lan egiteak balio politiko eta sozial handia du gaur egun, are gehiago erabilgarritasun ekonomikoaren ideologiak eta ikuspegi indibidualizatzaileek indarra hartzen duten testuinguruan. Justizia soziolinguistikoak diskurtso kontrahegemoniko bat eskaintzen du: hizkuntzen auzia pertsonen duintasunarekin, parte-hartzearekin eta gizartearen demokratizazioarekin lotzen du.

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus